

ARRASATE

PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10. C
ARRASATE

Arrasate 1989ko irailak 15, 32. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Umezaintzako neska-mutikotxoak lehenak izan ziren

Berriz eskolara

Astelehenean, goizeko bederatzirak inguruan kalean baldin bazeundeten gure herriko neska-mutikoak beren karpeta, liburu etab.ekin ikastetxeetara abiatzen ikusiko zenituzten aspaldiko partez. Oporrak amaitu zaizkie dagoeneko eta gure herriko haurrak Euskal Herriko gehienentzako antzera itzuli dira beren eginbeharretara. Aurtengoan, azken urteetako joerari jarraituz, gehien-goia B edo D ereduetan matrikulatu da, nahiz eta beren kopurua gero eta txikiagoa izan gero eta haur gutxiago izaten bait ditugu euskaldunok. (16. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Arrasateko atxilotuak Madrilen

Joan den astean Ertzantzak atxilotu zituen arrasateko lau gazteetatik hiru Carabanchelgo espetxean daude Entzutegi Nazionaleko epailearen aurrean adierazpenak egin ondoren.

(11. or.)

ELKARRIZKETA

Jesus Garmendia

Eskoriatzako Irakasle Eskolako zuzendariarekin eskola honen gaur eta biharraz solasean aritu gara. (19. or.)


PODIUMA

Pello Bengoetxea

Ordarrutar mutil honek Mondrako mutilen ardura du bere gain. (21. or.)

OHARRA

Joan den astean kaleratu genuen orrian huts txiki-handi bat egin genuen. Gure egoitza Arrasate Pasealekura pasa dugu baina 3 bis atartera, eta ez 2ra. Barkatu eragozpenak. Dagoeneko harpidetza berri ugari jaso dugu, anima zaitzete eta bidal itzazue zuenak ere.



Arrasate

Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea	798777
---	--------

15 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Las amistades peligrosas".
- Arte hamabostaldia: Argazki, grabatu, pintura eta zeramika saioak Ospitale zaharrean.
- Antzerkia: EKEKEI taldeak "Ni naiz kapitan piloto" obra antzeztuko du Zaldibarren, 10etan.
- Oñatin: Santa Ana antzokian Txo-xongilo taldearen ekitaldia 5etan.
- Oñatin: Santa Ana antzokian Maskarada antzerki taldearen "Kontrabaja" obra 10,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena.

16 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Mi novia es un extraterrestre". 5etan, 7,30 eta 10etan.
- Novedades (Bergara): "Loca academia de policía 6". 5etan 7,30 eta 10,30etan.
- Oñatin: "Kukubiltxo" taldearen ekitaldia foru enparantzan, 6,30etan.
- Alberto "magoa" Monterronen, 6etan.
- Arte hamabostaldia: Argazki, grabatu, pintura, zeramika... Ospitale zaharrean.
- Oñatin: Zubikoa kiroldogian Ruper Ordorika eta Rory Mcleod-ekin jaialdia.
- Goardiako farmazia: Ana M^a. Morales, S. Andres.

17 IGANDEA:

- Zinea: Alai: "Mi novia es un extraterrestre".
- Novedades (Bergara): "Loca academia ... 6"; 5etan, 7,30etan, 10,15etan.
- Oñatin: "Hamaseigarrenean aida-nez", 10,30eta.
- Arte hamabostaldia: Erakustaldiek

IKASTAROAK

Argazkigintza: Josu argazkidendak antolatuta, Irailaren 19an hasita 16 ordu hilabetez zehar, astean bi egunez. Zurbeltzean, koloretan eta diapositibekin arituko dira, reflex argazi-makinarekin. Prezioa 15.000 pta.

IRTEERA

Bazanera: Garagartzeko 70 auzokidek urtero bezala egingo dutena jaiei hasiera emateko. Irailaren 17an, larunbatez.

ERAKUSKETAK

Etxe Aundin: Carlos Larrañagak Paisaia ezberdinen argazki erakusketa.
Kalistroetan: Arte Hamabostaldiaren erakusketa

jarraitzen dute Ospitale zaharrean.

- Oñatin: Santa Luziako zelaian "XXIX. Nazioarteko artzai-trakurren Trebetasun Lehiaketa", gaizko hamaiketan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerias.

18 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Mi novia es un ...". 7etan, 9,30etan.
- Novedades (Bergara): "Loca academia de ... 6" 6etan, 7,30etan.
- Oñatin: "Hamaseigarrenean aida-nez", 5etan.
- Arte hamabostaldia: Erakustaldiak Ospitale zaharrean.
- Goardiako farmazia: Español, Resusta.

19 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Mi novia es un ...". 7etan eta 9,30etan.
- Oñatin: Santa Ana Aretxean Jerardo Elortzaren hitzaldia. Gaia: "Oñatiarrez idazterakuan sortzen diren arazuak" 7,30etan.
- Arte hamabostaldia: Bideoa: Laburmetraiaren errealizazioa, 6etan.
- Erakustaldiak Ospitale Zaharrean.
- Goardiako farmazia: Korkuera, Muskakola.

20 ASTEAZKENA

- Oñatin: Zumairako jubilatuen elkar-tereko antzerki taldeak "Debalde da amets egitea" obra, 6etan eta 10etan.
- Arte hamabostaldia: Erakusketak Ospitale Zaharrean.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

21 OSTEGUNA

- Oñatin: Santa Ana Aretxean "Euskari buruzko mahai-ingura" 7,30etan.
- Arte hamabostaldia: Erakusketak.
- Goardiako farmazia:

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebeha.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Ruth Otaduy

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Mikel Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila Galañena, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.900 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Revival

The Equals-en “Baby come back” kanta ekarri didate gaur goizean irrati uhinek, iratzarri berri nintzela aparailua piztu dudanean. Aspaldiko oroitzapenek dantza egin dute nire gogoan –behinola orrialde honetan idatzi dudan bezala– inoiz hobe izango ez den iraganeko, oroitzapenak, hain zuzen. Dena dela, garaikoak garaiko, gomutapenetako oihanetatik ibilalditxoren bat egi-teak unetxo batez gazteago bihurturaz gaitzake. Irudimenean, behintzat.

“Revival” hitza darabilgu iraganeko musika estilo bat berriz ere modan dagoela adierazi nahi dugunean. Musika zaleok ongi frogatua dugunez gure egunotan maiz itzultzen da burua atzerantz, beren unean arrakasta irabazitako kanta eta abestiak berplazaratzen direlarik. Horrek ez gaitu kezkatu behar, artean denboraren konzeptuak ez baitu adierazpenik, hau da, iragana eta etorkizuna bateratu egiten dira orainaren bitartez. Baieztape horren “Hamlet”, Mozarten “Txirula majikoa”,...

Revival-aren esangurari ostikada ematea suposatuko ez balu, hitz hura ere erabil genezake munduan gaurregun ematen ari diren zenbait bererrepikapen mugatzeko. Horietako bat, dudarik gabe larriena, Txinako errepublikan jasaten ari diren egoera latza dugu. Eddy Grantek –The Equalsen abeslaria– “neskaren itzulia” eskatzen zuen garaian, Txinan kultur iraultza ari zen pil-pilean Mao guztiz ahaltsuaren eskutik. Ordena berriaren izenean, itzelezko iraultza odoltsua ematen ari zen munduko estaturik populatuenean, zaintzaile gorriek sarraski ikaragarriak eragiten zituztelarik. Odolezko zurrumbilo ero hartan lema galdu zuten txinar agintariak, ondorioz Maoren beraren irudiak ere itzala ezabatuz.

Iraganak iratzarri nau gaur goizean eta artearen betierekotasuna dut oroitu. Iraganak astindu nau txinar urruntasunetik eta ezintasunaren amorruean loak hartu nau, inoiz hobeak izan ez diren egunak berriz ere ez urratzea eskatzen dudalarik.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta
famili bilerak**



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

NASA

ASEGURUAK

Zeuzertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

**ZURE ESANETARA
GAUZKAZU!!**

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 79 69 00

ARRASATE

Udalak euskararen aurkako erabaki bat hartu du

Berriz ere euskaldungoak nozitu behar izan du interes politikoaren zapalketa, berriz ere euskarak izaten dituen lorpen txikiei ez zaie jaramonik egiten, eta berriz ere euskararen alde hainbat mezu zabaldu eta gaztelerrari irekitzen zaizkio ateak.

Orain bi urte eta alderdi politikoek aurrekanpainan, haiekin eginko batzarretan azaldu zuten jarrera zela, nahiko baikor agertu ginen Udaltzaban gerta zitekeenaz.

Euskara Batzordea osatu zen, merezi zuen garrantzia ematen zitzaiola zirudien langile bat kontratatu zen... baina Udaltzaba konturatu ahal zen E., B. bat sortzeak zer suposatzen zuen?

Aurreneko mailan Udala eta era berean herria euskalduntzeko sortzen da E.B.

Udaleko sail guztiak euskalduntzeko eta langintza hau dinamizatzekeo dago. E.B.

Honek zera adierazten du;

— Sail guztiak izan behar dutela argi eta garbi bere saila euskalduntzen laguntzeko dagoela E.B.

— Eta bakoitzak bere saila euskalduntzearen beharrez kontzientzia izan behar du.

— E.B.ak Udala batetako apostu gorenatariko bat suposatzen du eta Udaltzabek ez luke inoiz txikitu behar apostu honek merezi duen maila.

— Udala batetan E.B. izatea euskararen aldeko konpromezu bat sinatu dela erakusten du, eta udal horretako partaide guztiak daudela konpromezu horrekin hitzarmenduak.

— Aurpegia zuritzeko edo soilik itzulpenak egiteko langintza duen E.B.ak ez du inongo baliorik, E.B.a udalak euskara sortzeko dago.

Aretxabaletako alkateak puntu guzti hauei farre egin die; eta E.B.ko plangintza kontutan hartu gabe gaztelaniaren aldeko erabaki zorrotza hartu du, Idazkaritzako postu hautaketan.

Guzti honen aurrean euskaldungo ezin da ixilik geratu, Beinke ezin da ixilik geratu eta herriak ere ez luke ixilik geratu behar.

Gure suspentsoa eta salaketa Aretxabaletako E.A.ri euskara bitarteko den legeak kontutan hartu gabe gaztelerraren aldeko apostua hartu duelako.

*Beinke kultur taldea
(Aretxabaleta)*



Uribarriko festetan dibertsio berria

Uribarri auzuneko festak ospatzen Arrasateko biztanle batzuk lehiaketa basati baten lekuko izan gara:

“Gizaki” talde bat “basurde” talde bat baino basatiagoa zen ala ez alderatu nahi zen.

Argazkian garbi ikus daiteke lehiaketaz aurretiko eta ondorengo egoera.

Emaitzetatik ikusten denez Eskola Politeknikoko lorategian, zuhaitzak erorita, moztuta, zuhaizkak eta loreak erauzita, guztiz zapaldua eta zuzituta agertzen dira.

Talde honi bere eraiste eta suntsiketara “lan kontzientzizkoagatik” domina bat jarri behar zaiola uste dugu.

Lorategi saintzeaz arduratzen direnak eta bereziki hainbeste ordu eman dituzten ikasleek, eskertzen diete erakutsi duten errespeto eta kultura ekologista.

*Agustin Olarieta
Eskolako Mantenu-arduraduna*

Gasari buruz

Aspaldi honetan, gasaren obrak direla eta, herria hankaz gora uzten ari direla uste dut. Bideak alde danetan zulatuta daude, bazter batek besteraino, bide guztiak zeharkatuz. Eta hori gutxi balitz, zuloak estaltzen denbora asko egiten dute. Bitartean, noski, herritarrok nahikoa traba edo oztopo jasan behar izaten ditugu. Eta azkenik, leku batzuetan —ez danetan— ahal den moduan estaltzen dituzte zuloak, lehendik bideak gaizki bazeuden orain txarrago utziz. Ia hobeto eta txukun egiten saiatzen diren.

Besterik gabe, agur.

U. B.

Nagusia izatean zer izan nahi zenuke?



Roberto Tristan
(5. maila B eredua)
Ez dakit, ez dut pentsatu.



Estefania Hernandez
(7. maila B eredua)
Andereñoa izan nahi dut, oso gustatzen zait eta.



Gaizka Olabarrieta
(5. maila, B eredua)
Dentista, baina ez dakit zergatik




Goizane Rojas
(7. maila, B eredua)
Kazetaria, gustatzen zaidalako.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai,9

ESKORIATZA-Arana,13



MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



J. M. Heriz

axuleiuak

Porcelanosa, Azuui, Pamese...
Otalora Lizentziatua. Arrasate

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

“Tren geltokia izateko aukeraz, Arrasateko alkatea eskeptiko samar azaltzen da. Antolinek garbi asko esan zuen, ez dela bidaiarientzako geltokirik izango, tren azkarra gura da eta kapitalen artean paradarik gabe. Agian, merkantziatarako terminalen bat izango da, inguruko industriarako interesgarri gerta daitekeena.”

(Lino Mondragón kazetariak “El Correo Español” egunkarian)

“Itxaro Leibar gizarte-laguntzaileak duela gutxi eginiko azterlan batean adierazten du: Arrasaten bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen erdiak Lanbide arteko Gutxienezko Soldata baino gutxiago kobratzen du. Azterlan honek zera azpimarratzen du, azterlana egiteko hartu duen kolektiboan, 65 urtetik gorakoak, 2.300 pertsona, gehienak emakume alargunak direla. Era berean, instituzioek, batez ere, Udalak, dituzten zerbitzuez informazio falta handia dagoela ikusten da; horrezaz gain, ahalik eta aguroen lanerako terapia programa bat egiteko beharra.”

(DV egunkaria)

“Fagor taldea hiru arlotan dago banatua. Bata kontsumorako produktuak egiten dituen arloa, bestea osagai industrialena, eta hirugarrena, injinerutza eta ekipondasunena. Guztira 7.000 langile ari dira lanean, eta iaz 64.702 milioiko salmentak izan zituen, eta esportatzen dutenaren %75 inguru Europara doa. Baina ez da Europa Fagorren helmuga bakarra, EEBBetan, Hong-Kongen, Errusian eta abarretan ere ezagutzen dituzte Fagorrek egindako produktuak. Beraz, esan daiteke, atzerrian saltzea ez dela gauza berria beraientzat.”

(HABE aldizkarian)


Zer dira tenporak? Zerikusirik badute eguraldiarekin?

Tenporena, VI. edo VII. gizalditik datorkigun ohitura dela esan daiteke. Ilargiaren zikloarekin lotuta daude, nahiz ondoren elizak kristautu egin dituen. Dena dela, ilargiaren aroekin segitzen dute lotuta, lehen tenporak Garizumako lehen astean izaten bait dira. Garizuma, Bazkoa baino 40 egun lehenago hasten da eta Elizak Bazko eguna ilargi betearen ondorengo igandean jartzen du, beraz ikus dezakegunez ilargiarekin harreman estuan daude tenporak. Tenpora egunak festa egunak izaten ziren, egun hauetan apaizen ordenazioak eta, burutzen zirelarik. Urtean zehar lau tenpora aro dugu, lau urtaroeekin bat. Tenporak asteazkenean hasten dira eta larunbatean bukatu, egun honetan segun eta nolako haizeak jotzen duen, hurrengo hiru hilabeteetan haize hori izango dugu nagusi. Aintzina larunbatean zein haizek jotzen zuen jakiteko lasto-balak pizten zituzten baserritarrek.

Egia esan ez dago honen inguruko ikerketa zehatzik, beraz ezin esan daiteke frogatuta dagoenik tenporetan jotzen duen haizeak hurrengo hiru hilabeteetako eguraldia baldintzatzen duenik, dena dela kontrakorik ere ezin dugu esan. Nik Arantzazuko obserbatorioan daramatzadan urteetan behintzat, ez da kontrakorik gertatu. Tenpora larunbatean hegoa ala ifar-mendebala geratu ohi da; hau da, hurrengo hiru hilabeteetan haize horietako bat izango da nagusi. Edozein modutan ere, egunero eguraldia iragarri behar dugunok ezin gaitezke tenporez balia.

Pello Zabala

Arantzazuko metereologi zentroko arduraduna.



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA


GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

A r r a s a t e
u ●
t
o
e Klase
s praktiko
k eta
o teorikoak
l
a

Olarte, 30
79 89 89


DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

Aldean eraman alde guztietara



- Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko. Diru-arazorik ez izateko.

Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.

Ordu-arazorik gabe.

Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.

GK Txartela duzu praktikoena.

Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.

Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

- Garibaiko Sukurtsala
- Zigarrolako Sukurtsala
- Munareko Sukurtsala

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

prentsaren begia

OSTIRALA 8

CORREO: "Arrasateko Arte Hamabostaldia, programa zabala duelarik, Irailaren 11 eta 30 bitarteko egunetan".

DEIA: "Trafiko arazoak direla eta, arduraturik".

DV: "Plenoak gaur erabakiko Arantzazura doan ala ez".

EGIN: "Arrasateko saihebiderearen obrak Abenduan amaituko".

LARUNBATA 9

CORREO: "Arrasateko Udalak uko egin Altamiran etxebizitzak erreterbatzeko eskubideari".

DEIA: "Arantzazura erromes joateari buruz alkateari galdera".

DV: "Uribarri-Erguin gaur jaietako bigarren eguna"

EGIN "Uribarri-Erguin gaur jaietako bigarren eguna".

IGANDEA 10

CORREO: "Arrasatek Arantzazurainoko urteko peregrinazioa gaur egingo Gezaltzatik goizeko 9etan".

DV: "Udal bilkurak ofizialki erabaki gaur Arantzazura erromes joateko".

ASTEARTEA 12

CORREO: "Arte Hamabostaldiko tailerrak atzo hasi Arrasaten".

DEIA: "Arte Hamabostaldi bat antolatu da"

DV: "Larunbatean, Santamaina auzoan «Toki Argi» jubilatuen etxeari hasiera eman".

EGIN: "Arte hamabostaldia, arte tailer bat eraikitzeke lehen urratsa".

ASTEAZKENA 13

CORREO: Aurrekontuen birregokitzea eta ordenantza fiskal berriek Arrasateko Udalean lanik garrantzisuena".

DEIA: "Gas natural jartzeko subentzioak"

DV: "Arrasate kirolak saski-baloi taldeak, mailaz igo ondoren, bere historiaren aposturik handienean aurkitu".

EGIN: "Euskara batzordeak umeentzako tailerrak antolatu ditu eskoletan"

OSTEGUNA 14

CORREO: "Eraikuntz enpresak baieztatu du dagoeneko Arrasateko saihebiderea urte amaierarako bukatuta egongo dela".

DEIA: "Altamiran etxebizitzak eskatzeko hilabete bateko luzapena".

DV: "Datorren asteartean inguru horretan dagoen hizkuntz eskolarik handienari hasiera emango".

EGIN: "Ahizke-CIMEk datorren astean lokal berriei hasiera emango".

Usteak uste...

Nire oharrak gainbegiratzan ari nintzela, bapatean boligrafoa airean irten zait eta neuk ere sekulako jauzia egin dut aulki gainean. Bazirudien bihotzak ez zuela aurrera egin nahi. Sekulako sustoa!

Kurtexikitik etorri da eztanda, zorioneko saihebiderearen obretatik. Harrotu den hauts eta ke-lainoak izkutatu egin du ur-depositoa. Danbadako honek gure inguruen egoera eskasa ekarri dit gogora.

Azken urteotan Mondragoeko industriak eta herriak berak aurrera egin duten neurrian, gure ingurueta-ko komunikabideak guztiz zaharkituta gelditu dira: trena pikutara joan zen eta errepide kaskar hauek apenas onar dezakete ibilgailu gehiago. Zerbitzu mailan ere atzean gelditu gara.

1992a hurbilduz doan eran, badi-rudi gabezia guzti horiek, denak batera konpondu gura ditugula: saihebiderea, autobia, tren berra, gasbiderea, industrialde berriak, saletxeak, aparkalekuak, pilotalekua... Lanak bateratsu doazenez gero, horra hor egun hauetan bizi ditugun trafiko arazoak, kalean normal ibiltzeko eragozpenak, zaratak, etab.

Ez dut esango anabas hau zeruko mana denik, baina mugitzen ari gareneko seinale bada. Ez da gutxi, zeren ezin bait gara berriro atzean gelditu. Joanak joan, oraintxe hasi behar dugu nahi dugun etorkizuna diseinatzen. Arrasaten dagoeneko hasiak garelakoan nago.

Joxe Aranzabal.

PEÑACOB
Auto-Eskola
Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
79 14 01
ARRASATE

PUB HAIZEA

arrasate

Ruper Ordorika eta Rory Mc Leod

Ruper Ordorika eta Rory McLeod ingelesa izango ditugu elkarrekin Irailaren 16an, larunbatez, gaueko 10,30etan Oñatiko Zubikoa kiroldegian eskainiko duten jaialdian. Ekintza hau, Urriaren 1ean ospatuko den "Kilometroak 89"ren inguruko kultur programazioaren barne antolatu dute.

Tipo kuriooa McLeod. Zirko batean pailaso lanetan aritua, Texaseko Kervilleko jaialdiaren arduradun eta aurkezlea...

Gaur egun bere esparru partikularra betetzen du Folkaren munduan. Bakarrik burutzen ditu bere musika-saioak, inoren laguntzarik gabe. "Footsteps and Heartbeats" kaleratu



Rory Mc Leod

berria duen diska aurkeztuko du Oñatin. Gizon-orkestra baten antzera, makina bat musika-tresna erabiltzen ditu Rory McLeodek: Armonika, zinbalitoak, tronboia, bandurria, kitarra akustikoa, mandolina,... etab.


■ "Gothic" Irailaren 22an.

Kultura sailak irailerako prestatu dituen zine emanaldiekin jarraituz, datorren ostiralean Ken Russell zuzendariaren "Gothic" filmea ikusi ahal izango dugu Monterronen.

Fikzioa eta beldurra aurrez-aurre zuzendari britainiarraren lan hone-tan, istorio fantasmagorikoa biribiltzen saiatuko delarik. Musika barroko eta soinu arraroek osatzen dute filmeak lortu nahi duen giro arraroa.

■ Alberto "magoa" Monterronen

Arrasateko Udalak umeentzako antolatzen dituen ekintzen barne, Irailaren 16an Alberto "magoa" hurbilduko da Monterronera. Saio berezia, beraz, larunbat arratsaldeko 6etan hasita bertara doazen umeei eskainiko zaiena.



Arte hamabostaldia Arrasaten

Arrasateko 18 artistaren ekimenari esker, Irailaren 14ean hasiko den "Arte hamabostaldia" dastatu ahal izango dugu herritar guztiok. Egitarau biribil-biribila Sebero Altubeko Ospitale Zaharrean hilaren 30a arte eskainiko digutena.

Erakustaldiak S. Frantzizkoko kalistroetan eta Tailerrak Ospitale Zaharreko gela ezberdinetan kokatuko dira. Besteak beste, honako ekintza hauek aurkitu ahal izango ditugu: Bideoa, argazkigintza, grabatugintza, pintura, zeramika eta arteari buruzko hitzaldiak.

Ordutegia goizeko 11etatik 2etara, eta arratsaldeko 5etatik 8etara; aukera polita, beraz, gure artisten mundua ezagutzeko.

LASAGABASTER


Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Igor Letona



Joseba Korta



Xabier Atxa

Arrasateko atxilotuak Madrilen

Ertzantzak zulo bat aurkitu "Ikutixo" inguruan

Dagoeneko, joan zen ostiralean Ertzantzak Arrasaten atxilotutako hiru gazteak Carabancheleko espetxera eraman dituzte. Aldez aurretik, Baltasar Garzón epailearen aurrean egin zituzten adierazpenak Entzutegi Nazionalean, astelehen eguerdian.

Joseba Korta, 18 urtekoa, Igor Letona eta Xabier Atxa, 17 urtekoak biak, dira orain espetxeratu dituzten gazteak. Poliziak ETAko "Jatorra" komandoa osatzea leporatzen die.

Besteak beste, Garzón epaileak honako salaketa hauek egotzi dizkie hiru gazteei: Talde armatuaren partaide izatea, lehergailu eta armak edukitzea eta atentatu bat egiten saiatzea.

Gai honekin lotuta, Ertzantzak zulo bat aurkitu zuen larunbatean "Ikutixo" inguruan. Bertan, 38 kilo "Amosal" eta leherketa areagotzeko zenbait material izkutatzen ziren. Ertzantzaren ustetan, guzti horiek joan zen Apirilean Santa Barbaran aurkitutako lehergailuen antzekoak dira.

Aipagarria da haxe dela Ertzantzak Madrileko epaile baten aginduz eginiko lehenengo atxiloteta. Baltasar Garzónek eman zuen hiru gazteen aurkako agindua, eta Ertzantzak berak eraman ditu aurrera diligentsia guztiak: Atxilotetak, hiru egunez luzatu ziren galdeketak eta baita presoen garraioa ere Madrileko Entzutegi Nazionalera.

"Eman zeurea"

kanpaina

Irailaren 7an aurkeztu zen Eibarraren 15 Udalerritako agintariren presentziaz (Arrasateko alkatea barne), Deba Bailara osoan aurrera eramango den "Eman zeurea" izeneko kanpaina.

Bi helburu bete nahi dira: Alde batetik gurasoak kontzientziaz, umeek euskaraz jakiteak duen garrantziaz jabetzeko; bestetik, gurasoek ere euskara lantzea umearekin transmisioa euskaraz izan dadin.

Honako ekintza hauek azpimarratu behar kanpainaren barne:

-Ikastetxeetan gurasoekin bilera.

-Karteladak, hilaren 11tik aurrera.

-Azken jaialdia: Imanol Urbieta eta Sebastopoleko titiriteroak, Irailaren 23an Arrasateko Kiroldegian.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
 Jose M^a Gomez doktorea
 A. Otalora doktorea
 A. Estomba doktorea
 M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...


Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previassa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate



Egitasmo honetan nahi dutenak sartuko dira

Fagor plantila gaztetu nahian

1990. urtean 55 urte edo gehiago dutenen artean

Hautsak harrotu ditu hasieran Fagorrek aurrera daraman jubilazioak aurreratzeko egitasmoak. Kooperatibaren bozeramaileen hitzetan asmo honekin Lagun Aron erretiroa aurreratzeko aurrirakusten den posibilitateari lagundu nahi zaio, kontuan hartuta langileen artean oso zabaldua dagoela jubilazioa aurreratzeko guraria. Plantilaren gaztetzea ere sartzen da helburuen artean.

Egitasmo honen arabera, 1990. urtean 55 urte edo gehiago duten lan bazkideak sartuko dira, gura izanez

gero, hori bai, eman beharreko pausak guztiz borondatezkoak dira eta. Bide hau aukeratzen dutenei kooperatibek interesik gabeko kreditoak emango dizkiete, denetara 1.300 milioitara igo daitekeelarik. Zenbaitek uste duenez, 1.000 lan-bazkide inguru sar daiteke plan honetan. Eskaerak egiteko epea Irailaren 30ean amaituko da. Horrez gainera, Fagorrek aditzera eman duenez, egitasmo honek ez du araututa dagoen lan-bazkideetza eskuzaldatzeko eskubidea kentzen.

Espeleologia ikastaroa

Udaletxeko Gazteria Batzordeak antolatuta, Irailaren 30ean hasita eta Urriaren lau igandetan zehar Espeleologia ikastaroa emango da, Besaide Mendizale Elkartearen eskutik. Gutxienez 16 urte eskatzen dira esku hartu ahal izateko. Izenak emateko jo Gazteri Zerbitzura, Udaletxean.

Zentsuaren zerrendeak kalean

U-29ko hauteskundeak direla eta, honez gero kalean daude Udaletxe berriaren ate ondoan Arrasateko zentsuaren zerrendak. Ez bazaudete bertan, Udaletxeko idazkaritzara jo zuzenketa egiteko. Ostirala, hilak 15a, izango da azken eguna.

JAIOTZAK

Etxebarria Castellano *Aitor*
Abustuaren 30ean
Morillón Rascón *Miren*
Abustuaren 30ean
Blanco Rioja *Ander*
Abustuaren 31an
Gallastegi Galarraga *Ion*
Irailaren 1ean
Barreiro Sánchez *Asier*
Irailaren 2an
Moreno Conde *Alicia*
Irailaren 6an
Elorza Altuna *Maitane*
Irailaren 7an
Moreno Etxeberria *Julen*
Irailaren 8an
Esparza Guretxerri *Iker*
Irailaren 10ean

EZKONTZAK

Alejandro Ropero Cuevas
Rosa Maria Sánchez Valor
Irailaren 9an



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

DATU-BASEAK


OFIMATIKA

MANTENU-ZERBITZUA

***Ekipamendu eta programak**

***Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



Etxe bila Altamiran

Eskaerak aurkezteko epea hilebetez luzatu nahi

377 eskari aurkeztu dira honez gero Mondragoeko Udaletxean, Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza Saila Altamira auzoan eraikitzen ari den 41 babes ofizialeko etxebizitzetarako. Eskariak azaltzeko epea printzipioz Irailaren 11a arte bazen, Arrasateko Udalak hila bukatu arteko epea eskatu du.

Datozen egunetan Osasun sailak eskatzaile bakoitzaren beharrak, diru eta famili egoera, bestelako zirkustantziekin batera aztertuko ditu, etxebizitzak eman aurretik.

Hamalau etxebizitza 76 metro karratukoak dira, beste hamabi 72koak, bost 68koak eta gainontzeko seiak 67 metro karratukoak. Salneurriak, ostera, 4.270.000 pta. eta 3.733.000 pta. artean dabilta, azalera eta trastelekuaren arabera, eraikuntzak 10 m. karratu 12 trasteleku edukiko bait ditu.

Udalak bere aldetik ez du erabiliko etxebizitza guztien %25a beretzat gordetzeko legeak ematen dion eskubidea. Diputazioak beste horrenbeste egingo duela uste da.

Trafiko arazo larriak

Udarako atsedena eta gero, Iraila heldu bezain laster berriz ere Trafiko arazoak areagotu egin dira Arrasaten. Saihesbidearen lanak direla eta, eragozpen ugari sortzen dira herrian, batez ere lantegietan sartu eta irtetzeko orduetan.

Gaur egun Nafarroa etorbidean ari dira lanean. Oxinako zubia eta industrialde berriko inguruetan arituko dira gero.

San Josepeko zatia gainditzen dutenean (bertan eginiko leherketek arazo larriak sortu dituzte inguruko etxebizitza eta Umezaintzan), Abenduak 23rako saihesbidearen lanak amaituta egotea espero da.



Egonarria behar kotxedunak

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

T x a n d a k a

■ Urkulun urtebeterako ura

Gipuzkoako Diputazioaren urzerbitzukoek esan digutenez, oraintxe bertan Urkuluko urtegiak 6.900.000 metro kubiko ur dauzka, hau da, duen ahalmenaren (10.000.000 metro kubiko) %69a. Bertako teknikoek esan bezala, dagoen urarekin, eta bat ere euririk egin barik, urtebeterako ura izango genuke geure etxeetan.

■ AHIZKE/CIMek ikastetxe berria

Datorren 20an izango da S. Andres auzoko Txindoki dorrean, AHIZKE hizkuntz eskolak zabalduko dituen lokal berrien inaugurazioa. 34 ikasgela edukiko dituzte, bi solarirutan banatuta. Hargela, osterara, behean.

Bertiko zerbitzuak eskaintzen segituko dute, hots, aleman, frantsez, eta ingelesaren irakaskuntza, itzulpenak, elkartrukaketak, udalekuak, etab. AHIZKEk 2.100 ikasle ditu Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasaten. Mondragoen soilik, 1.700 ikasle inguru.

■ Arrasateko Telebistak badauka etxea

Joan den Irailaren 6an izandako Gobernu-Batzordeak erabaki zuenez, MCM Metalurgica lantegi zaharrean kokatuko da ATB, Arrasateko Telebistaren egoitza. Lanean hasi aurretik, dena den, egokitu eta txukundu egin beharko dira lokalak.

■ "Irinmodo" Antzuolan

Jaietarako 64 orrialdetako aldizkaria, "Irinmodo", plazaratu zen. Duela urtebete gertatutako hondamendian oinarrituta. Egileak Joseba Lezeta eta Bernardo Kortabarria kazetariak dira, Iñigo Ramirez irakaslearekin batera. Gehiena euskaraz dago.

Euskal Herrian euskaraz, eta atzerrian...

Gaur egun, nazioarteko hartu-emanak inoiz baino ugariagoak direla, begi bistan dago guztientzat bat bera den hizkuntza bat ezinbestekoa dugula.

Pragmatikoenentzat ingelesa omen da konponbidea. Halere, jokaera horren aurrean,

segidan dator kit burura ondorengo galdera: Zertan onartu gizarte zehatz baten hizkuntza, dela ingelesa, dela frantsesa, dela...?

Hizkuntza bat unibertsaltzat jo dezagun, guztion adostasuna behar da eta, alde horretatik, argi eta garbi dago nazio hizkuntza bat aukeratzeko baldin badugu neutraltasun-irizpidea alde batera uzten dugula, kolektibitate batzuei lehentasuna eman eta besteak diskriminatzen ditugula.

Beste aldetik, ondotoxo dakigu hizkuntz inperialismoak bere baitan dakarrena. Gogora dezagun frantsesak eta gaztelaniak -baten bat aipatu arren- beren menderri edo kolonien hizkuntzei ekarri zieten hondamena.

Asmatutako hizkuntzen artean arrakasta gehien lortu duenak, esperantoak, alegia, duela ehun urte L.L. Zamenhof osagileak sortu zuenetik, gainez erakutsi du bidezkoa dela modu samur batean mundu osoko gizon-andreok elkarri ulertzea.

(...)Nork daki esperantoaren literatura 35.000 liburuk osatua da-



Iñaki Ruiz de Gauna*

goela? Nork daki herrialde guztietako 13 milioik berba egiten dutela esperantoz? Nork daki mundu osoko 20 irati-etxek baino gehiagok esperantoz emititzen dutela? Nork daki UNESCOK esperantoaren alde egin zuen era-

bakiaz? Nork daki esperantoaren bidez hizkuntzen artean itzultzeko konputagailu-sistemaz, BSO entepresa nederlandarrak sortu zuena? Nork daki 50 ordutan edonor mintza daitekeela esperantoz?

Nonbait negozio ederra montatu dute zenbait estatuk ingelezko inperialismoari esker eta ez dute, ez, alajaina!, erre amorerik emango.

Eragozpen guzti horiek gorabehera, esperantoaren eremua zabalduz doa etengabe. Aurten, Euskal Herrian izan eta izango da esperantista askoren helmuga. Aste Santuan Arabako Esperanto-Elkarteak antolatu zuen Gasteizen "Gazteen Kongresu Nazionala eta Uztailaren bigarren hamabostaldian, Bilboko Taldearen ardurapean, Bilbo bihurtuko da Estatuaren Kongresu Nazionalaren topaleku.

Badirudi beraz, Euskal Herriak, mende hasieran gertatu zen legez, berriz ere ireki dizkiola bideak esperantoiari. Dударik ez, ikastereztasuna, logikotasuna eta neutraltasuna komentzigarriak dira.

(*) Esperanton aditua

AATOR



PEUGEOT TALBOT


INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



MaxiEroski,
Azaroaren 9an
irekiko. Txistu
bizian doaz Arrue
baserri ondoan
EROSKI gure
eskualderako
eraikitzen ari den
maxiaren obrak.
Denda handi
honek 60
lanpostu sortuko
ditu.

izen propioak

Felix Lopez, 34, preso musakolarra Herreratik Ibizako espetxera eraman zuten, non isolatuta segitzen duen. Felix eta Edurne Iturbe bere emaztea (orain Ceutako gartzelan) Madrilen harrapatu zituzten. Magisteritza ikasketak presondegian amaitu zituen eta orain Psikologia ari da ikasten UNEDetik. Espetxeratu zutenetik birritan operatu dute belarritik.

Jose Ignacio Mora, 27, arrasatearra, Nokia Data multinazional suediarrek kontratatu du, informatika saileko komunikazio eta marketing zuzendaria izateko Madrilen. Jose Ignaciok kazetaritza ikasi zuen Iruñean. LKAn hiru urte pasatxo egin ditu. Azken aldi honetan TULankide aldizkariaren zuzendaria zen eta LKAko prentsaburua.

Koldo Martinez, 36, Eskoriatzan jaio eta Iruñean bizi den arrasatearra Nafarroako zerrendaburu izendatu du EE alderdiak datozen hauteskunderatarako. Koldo osagilea da eta Nafarroako Ospitaleko Zainketa Bereziko Gelan egiten du lan. Hamazortzi urte darama Nafarroan. EEko Nafarroako exekutiban dago eta partidu bereko Biltzar Ttipiko kide dugu.

Xabier Urizar, "Gautxori", 34, preso arrasatearra Herreratik Puerto de Santamariara eraman dute, Tenerifeko espetxerako bidean. 1985. urtean Saran atxilotu eta 1988an Espainiara estraditatu zuten. Gautxorik oinarrizko ikasketak eginak ditu eta espetxean E.G.A. titulua eskuratu du. Espetxeratu aurretik trefilazioan lan egiten zuen.

Barreak eta negarrak.

Denetarik egon zen Arrasateko Umezaintzak bere atea zabaldu zituen egunean. Gehienek primeran igaro zuten eta besteek seguru dagoeneko lagun piloa egin dutela.



Pozik ageri zaizkigu **Ramon Javi Labeaga** eta **Idoia Unanue** gazteak beren ezkontza egunean. Dorletan ezkondu ziren Ekainaren hamarrean. Mila zorion!



inpresio ona

IK3

**inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

Bete dira berriro ikasgelak

Iraila ikasleen hilabetea dugu. Irailean ikasleen inguruko gorabeherak, egunkari eta oro har komunikabide gehienetako orri eta tarte ugari betetzen dute. Batzuk, Ekainean ikasgai guztiak ez zituztelako gainditu eta beste asko Irailean ikasgeletara itzuli beharko dutelako, denak ditugu nobedade egun hauetan. Aste honetan, Arrasateko haurrak, Euskal Herriko haur gehienentzako, liburu, karpeta, eta beste abarrak aldean hartuta ikasgeletara itzuli dira. Honekin arrasatear gehienok ekin diogu urtean zehar egin beharko dugun lanari, ikasleak izaten bait dira beren eginbeharrak azken itzultzen direnak. Dena dela, BBB, IEE eta unibertsitat mailako ikasketak burutzen dituztenak oraindik, badute oporrez disfrutatzeko aukera, beren eginbeharrak beranduago itzuliko dira eta.



Lagunak berriz ikustean, hura zen berriketarako gogoa!

Eskolara itzultzeko prest

Arrasatear haurrak astelehenean bueltatu ziren ikastetxeetara eta esan behar, honek bai gurasoak eta bai haurrak poztu zituela. Lehen egun honetan, ikastetxe ezberdinetatik osteratxoa egin genuen eta zenbait haur eta gurasorekin itzulera honi buruz hitz egin. Haurrek azaldu zituzten, gustora hartu zuten eskolara bueltatze hau, oporretan bezain gustora pasatzen ei dutelako ikastetxean eta, bestetik, lagunak berriro ikusteko aukera izango zutelako. Bestalde, gurasoei ere galdegin genien eta Julik esaterako honako hau erantzun zigun "gaurko egunean denok gaude pozik, haurra desiatzen zegoen eskolara bueltatzeko eta ni

neu ere bai ezin ukatu, era honetan nire lanak lasaiago egin bait ditza- ket". Hala ere, ezin ahaz ditzakegu irakasleak, hauek nahikoa lan izango bait zuten, lehen egun honetan haurrak baretzen.

Haurra kurtsoan zehar behar izango dituen gauzez hornitzen, gurasoek 40.000 pta. inguru gastatu beharko dute

Edozein modutan ere, eskolara bueltatzeak makinatxo bat gastu suposatzen die gurasoei. Batetik, matrikula eta kuota ezberdinak ordaindu beharra dute, bestalde, haurrak ekin duen kurtso berrian behar

izango dituen liburu, karpeta etab.ak ordaindu eta azkenik, aurreko urteko arropa txiki geratu ohi zaienez, arropa ere erosi beharko diete. Oro har, haurra kurtsoan zehar behar izango dituen gauzez hornitzen, gurasoek 40.000 pta. inguru gastatu beharko dute. Haurren arropa erosten 28.000 pta. inguru gastatuko dute, anorak, jertse, oinetako, fraka edo gona eta beste abarrak kontutan hartuz gero. Arropa, kurtso hasieran nahita nahi ez erosi beharrik ez badago ere, liburu- en gastua ekidin ez dezaketen gastua dute gurasoek. Umeak, OHoko behe mailatan baldin bada- biltza, gurasoek asko jota 3.500 pta. inguru gastatu beharko dute ; kontu- tan izanik azken urteotan maila hauetan gero eta liburu gutxiago erabiltzeko joera dagoela. Aldiz, haurra OHoko goi mailatan ibiliz gero, 8.000 edo 9.000 pta. kostatuko zaie liburuak erostea. Kurtso hasiera honetan guraso batzuei gai honen inguruan galdegin genien eta Purik zera esan zigun "beno, nik haur bi ditut. Txikiari nagusiaren bi liburu balio izan diote, baina besteak erosi egin behar izan ditut. Ez dakit garestiak ala merkeak diren, prezio nor- mala ordaintzen dugula uste dut."

Gastu guzti hauez gain ikastetxea etxetik hurbil egon ezean autobusa hartu behar izango dute ikastetxera heldu ahal izateko, bidaia honek gastu estra suposatzen duelarik

Azkenik, ikastetxean bertan bazkal- duz gero, gastu hau ere gehitu behar- ko zaie aurrekoei. Beraz, ezin da esan merkea denik haurrak eskolara- tzea, nahiz maila hauetan eskolara- tzea beharrezkoa izan eta honen

ondorioz kuota etab.ak merkeak izaten diren.

Gehiengoa B edo D ereduetan

Arrasaten, aste honetan klaseetara lehen aldiz joan den hurren gehiengoak B -elebiduna- edo D -euskara hutsean- ereduetan burutuko ditu bere ikasketak, A -gaztelaniaz, euskara ikasgai soila izanik- eredia desagertuz doalarik. Fenomeno hau, Gipuzkoa osoan ematen da, kontutan izanda Gipuzkoan 373 eskaera baino ez direla egon A ereduan matrikulatzeko. Arrasaten bereziki D eta B ereduak dituzten ikastetxeetan, San Frantzisko Xabier ikastolan, San Viator Ikastolan eta ALMEN ikastolan D ereduan matrikulatu dira haur gehienak. Aipatzekoa ere, Erguin Eskola Publikoan D eredia indartzeko egiten ari diren ahalegina, iaz eredu honetako ikasgela bat izan zutelarik eta aurten berriz hiru. Edozein modutan ere, hiru gela hauetan lau mailatako neska mutilak elkarturik dituzte. Bestalde, San Andres eskola publikoan B eredia baino ez dute eta La Merced ikastetxe pribatuan matriku-

ikastetxe ezberdinetan zenbait berrikuntza aurkitu dituzte. Honela, San Frantzisko Xabier ikastolan aurten erdi zikloan, hirugarren mailatik aurrera, ingelesa ematen hasiko dira orain arte goi zikloan baino ez zute-

dutelarik. Murgiltze-plan hau, San Viator ikastolan ere martxan jarri dute. Bestalde, San Frantzisko Xabier ikastolan aditzera eman digutenez, beharrezko irakaskuntza bereganatzeko asmoa dute, 16 urte arte-



Hiru hauek behintzat pozik zeuden lehen egun honetan.

larik ematen ikasgai hau. Bestalde, ikastetxe honetan lehen mailako B

ko irakaskuntza hain zuzen ere, honetarako prestatze lanetan arituko direlarik urtean zehar.

ALMEN ikastolan, oster, berrikuntza edo nobedade gisa neska mutilak lehen mailatik aurrera jasoko duten ingeleszko klaseak aipatu dizkigute. Honez gain, ordenadoreak erabiltzen irakatsiko diete hurrei eta azkenik, Eroskirekin sinatuta duten komenio baten ondorioz, publizitateari buruzko proiektu bat martxan jarriko dute maila guztietan.

La Merced ikastetxean berrikuntza gisa 6. 7. eta 8. mailetako ikasleei eskainiko dizkieten informatika ikastaroak aipatu dizkigute.

Arrasatearrek eskolatze euskaldunaren alde egin dute apustu . A eredia, herrian desagertzera doan bitartean

lazio berri guztiak B ereduan egin dituzte, A eredia urte bi barru desagertuko delarik. Beraz, garbi ikusten da Arrasatearrek eskolatze euskaldunaren alde egin dutela apostu.

Zenbait berrikuntza ikastetxeetan

Umeak ikasgeletara itzultzean

ereduko hurrekin murgiltze-plan jarriko dute martxan. Plan honen arabera, haur hauek nahiz eta B ereduak izan, lehen maila honetan beren ikasgai guztiak euskaraz jasoko dituzte, honetarako metodo pedagogikoa ere egokitu egin behar izan

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!


Tfnoa:79 16 04



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114



**KONTRATAK
OROKORREAN**



Foruen enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE

89-90 IKASTURTEA

ARRASATE
ARETXABALETAKO
BERGARA



UDAL



EUSKALTEGIAK

MATRIKULALDIA

Irailaren 4tik

15era arte

ERRITMOAK

2 ordu

3 ordu

4 ordu

5 ordu

MAILA GUZTIAK

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
ARETXABALETAKO UDAL EUSKALTEGIA
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

79 70 77

79 21 68

76 44 53

**azken
egunak**

J. Garmendia: "Magisteritza Eskola etorkizunerako prestatzen ari da"

Gaur egun, Euskal Herriak Europako jaiotze-tasarik txikiena du, hori dela eta, gero eta haur gutxiago dago gure eskola eta ikastoletan eta ondorioz gero eta irakasle gehiago langabezia. Errealitatea hau izanik gure bailaran dugun unibertsital mailako hiru eskoletako baten etorkizunaz, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren gaur eta biharraz hain zuzen ere, bertako zuzendariarekin, Jesus Garmendiarekin, hitz egin nahi izan dugu.

— Magisterio Eskola sortu zenetik hainbat urte pasa dira, Azalduko diguzu eskolaren gaur egungo egoera?

— Duela bi edo hiru urte arte, gure ikaslegoaren gehiengoak lana aurkitzen zuenez ikaslez gainezka geunden. Geroztik eskoletan lanpostuak gutxiagotu egin dira, ondorioz, magisterio eskolan matrikula-zioetan jaitsiera eman delarik.

Jaitsiera Magisterio Eskola gehienetan eman da. Gurean, behar bada beste eskola batzutan baino apalagoa izan da jaitsiera hau, zenbait arrazoi direla medio. Esaterako, guk ez dugu beste magisterio eskola baten konpetentziarik, Bilbon edo Donostian gerta daitekeen bezala, geografikoki isolaturik gaude, beraz, gure bailaran magisterio ikasi nahi duen edonor guregana hurbilduko da.

— Dena dela, ez al zarete langabetu eskola bat sortzen ari?

— Esan beharra dago ia fakultate gehienek botatzen dituztela beren ikasleak langabeziara; medikuntza,

tsona batek irakaskuntzan ez bada ere, beste hainbat irtenbide interesgarri aurki dezake. Magisteritzak erdi mailako titulua eskaintzen du, honek hainbat lanpostutara jotzeko aukera ematen duelarik eta honez gain, goi mailako karreraren bat egin nahi izanez gero, egokitze ikastaroa eginez, erraz egin liteke.

Irakasle Eskolak plataforma eskaintzen du beste zenbait espezializatetara jotzeko, zerbitzu arloan edo sikomotrizitatean edota beste hainbatetan.

Guzti horretaz gain guk eskaintzen dugun hezkuntza euskaldunak zenbait bide jorratzeko aukera ere eskaintzen du.

— Etorkizunari begira zeintzu asmo dituzue?

— Beno, Irakasle Eskolan, gaur egun, irakaskuntza arautuari begira dauden adarrez gain, aukerako asig-naturen bidez, espezializazio berriak lortzeko aukera dago. Horrela, aurtengo kurtsoari dagokionez, kontsumo, soziolinguistika eta denbora libre-ludotekak espezialitateak egi-



Jesus Garmendia

Dena dela, aipatu dizkizudan horiek ikasleei zuzentzen dizkiegun berrikuntzak dituzu, Irakasle eskolak, Eskola bezala, beste zenbait bide jorratzen dihardu eta.

— Azalduko diguzu zeintzuk diren jorratzen ari zareten beste arlo horiek?

— Beno, duela gutxi arte gure eginkizun bakarra irakasleak hezteaz. Gaur egun hori, gure eginkizunetako bat baino ez da, beste zenbait lanetara zabaldu gara eta.


Une honetan Magisterio Eskolak, lanean diharduten irakasleei berziklatze-ikastaroak eskaintzen dizkie, horretan nahiko denbora eta ahalmen ematen ditugularik. Aipatu gabe ezin utziko ditut lantzen hasi garen zenbait esparru berri, irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, baina ez zuzenean lehengo formakuntzarekin, ezta irakasleen berziklatzearekin ere. Esparru berri hauek zerbitzu, ekologia, kontsumo, entzunikus eta beste arlo batzuekin zerikusia dute, eta gai horien inguruko postgraduado ikastaroak antolatzen ditugu. Haur liburutegiaren inguruan ere ekintza ezberdinak antolatu izan ditugu, liburutegietako dinamika nolabait berpizteko, erakusketak, idazleekin elkarrizketak... Diputazioarekin konbenioa sinaturik dugu eta hor dihardugu.

"Gure aukera Magisteritza eskaini, euskal hezkuntza jatorra eman eta zenbait ezpezialitateren bidez ikasleei gizartean bere kokagunea bilatzen laguntzea da"

letrak, informatika eta beste zenbait hor dituzue. Ikasketa hauek burututa duen jende oso gutxi aurkitzen du beren ikasketen araberako lanpostua, beraz maila horretan, magisteritza beste askoren parean dago.

Bestalde, titulu honi esker, per-

teko egokiera eskainiko diegu ikasleei, beste zenbait erakunderen laguntzaz. Gure aukera Magisteritza eskaini, euskal hezkuntza jatorra eman eta zenbait espezialitateren bidez ikasleei gizartean beren kokagunea, lanbidea, erreago bilatzen laguntzea da.



Hasiera eskaxa Mondrak aurtengoan

Arrasatearrek lehen bi partiduak galdu

Mondrak hasiera txarra eman dio aurtengo denboraldiari. Tolosaren aurka galdu eta gero, Alaves taldea izan genuen bisitari Atxabalpen ligako bigarren ihardunaldian.

Partidu borrokatua lehen zatian. Bigarrenean ostera, Alaves taldea nagusitu zen futbol zelaian. Penaltiz lehenik, eta Camacho gazteiztarren jokaldiz gero, 0-2-ko emaitzaz amaitu zitzaigun Atxabalpen izandako neurketa.

Bi arrazoi taldearen hasiera eska-xarentzat. Alde batetik, entrenamenduak berandu hasi zituztela, abuztuaren 16an; bestetik, ekipoak jasan dituen aldaketa ugari..

Jende berri asko dugu aurtengo Mondran. Entrenatzailea, Pello

Bengoetxea Ondarrutarra. Berarekin batera, honako jokalarik hauek heldu dira ekipora: Txutxin eta Atano atezainak; Maturana eta Del Alamo atzelariak; aurrekalderako berriz, Beitia, Atxa eta Aranburuzabala etorri dira kanpotik.

Guzti horiekin bat, aipatu behar gure harrobiko fruituak: Balzategi, Arabaolaza, Gordobil, Urretxu, Alfredo Alonso eta Hierro gazteak, hain zuzen ere.

Ikusten den bezala, makina bat lan egin beharko du Pello Bengoetxeak jokalarik guzti horiekin talde konpentsatua lortzeko. Ez dezagun ahaz, 17 milioiko aurrekontuaz Mondrak hirugarren mailako goiko postuak dituela helburuztat.

Jon Igoa titular

Aurtengo denboraldiari ederki asko ekin dio Jon Igoa arrasatearrak. Bi partidu aurrelari titular bezala, Burgos eta Zaragozaren aurka, eta jada lortua du bere lehen gola. Aipatu behar ere Zaragozaren aurka Errealak lortutako bigarren gola Igoari eginiko penalti bati esker heldu zela. Hasiera bikaina, beraz, aurrelari arrasatearrarena. Ea atzerritarrek ez duten lanik gabe uzten.

Pedrusko taldea itxaropentsu

Irailaren 17an ekingo dio San Andres auzoko Pedrusko taldeak aurtengo denboraldiari. Oraindik ere biribildu gabe dute futbol taldea, hainbat jokalarik alde egin dutelako beste ekipo batzutarra.

1.400.000 pta.ko aurrekontuaz, hirugarren mailara igotzeko asmoz arituko dira berriz ere San Andresekoak. Helburu hori lortuz gero, inolako zalantza barik gustoz dastatuko genuke arrasatearrok Mondra eta Pedruskoren arteko derbia hurrengo denboraldian. Emaitza onak lortu behar horretarako.

Herriarteko pilota txapelketan, Arrasatearrak kanpora

Igandean jokatu ziren herriarteko txapelketako final laurdenak Gipuzkoan. Arrasateko pilotariak Idiazabalgoen aurka neurtu zituzten indarrak. Nahiz eta haur (18-10) eta afizionatu (22-14) mailatan garaile irten, gaztetxoetan 17-22 galdu ondoren Arrasatearrak txapelketatik kanpo gelditu dira.

Igandeko emaitzen ondoren Idiazabal, Azkoitia, Azpeitia eta Zumarragako taldeak izango ditugu finalerdietan txapelaren bila.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KIROLDEGI JATETXEA

Eguneko menua
eta karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

podiuma

Pello Bengoetxea, futbol entrenatzailea


Ez dakit entrenatzaile titulua ateratzeko Albaceten hogeitazazpi egun nekagarri haietan psikologiarik ikasi zuen, baina 33 urteko ondarrutar sendo honek zazpiak inguruan ia jokalaria guztiak entrenamendurako bildu dituenen, pasean eraman ditu, poliki-poliki, Atxabalpeko zelaia pare bat itzuli emanez. Astiro doaz eta Pelloren ahotsa entzuten da soilik. Tolosako partidua ari zaie. Zerbait azpimarratu nahi duenean gelditu egiten da. Ez ei dago oso konforme. Futbolariak burumakur daude.

Atezain ezik, beste postu guztietan jokatu izan du txikitatik. Sei urte igaro ditu Gasteizen euskara irakasten, AEKn, eta entrenatzen. "Arrasaten ere horrelako zerbait lortuko banu, primeran ibiliko nintzateke. Goizetan euskara eta arratsaldetan futbola. Ametszeko oreka".

Entrenatzaile izateko "diren ikastaro guztiak" egin ditu, lehen aipatu dugun Albaceten. Han, "txikitari kromoetan ikusitako jendea" aurkitu zuen.

Pozik dago Mondrako jokalariekin. Amateurrak direnez, argi dauka ezin dutela Eibarrek edo Alavesek exenplu baterako daramaten aurre-denboraldia eraman. "Gure aurre-denboraldia laburra izan denez, ez diogu hasiera eman Ligari maila fisikorik egokienean. Horregatik lehen partiduetan sufritu egin behar harko dugu apur bat".

Bere burua eroso sentitzen du



Pello Bengoetxea

hirugarren maila honetan. Taldearen konstantziari ematen dio garrantzia. Arrasateko zalegoaz ere oso pozik dago, "inoiz ez naiz aurrekoan Tolosan bezain babestua sentitu. Hantzeuden laurogei arrasatear 'aupa Mondra'ka. Horrek animo itzelak ematen ditu".

Akaso bateren batek entrenatzaileak masokista samarrak ez ote diren esango du, baina Pellok ezein problema barik asumitzen du hori, futbolariek ematen dizkion pozak askoz betegarriagoak direlako. "Ni prest nago akatsen erantzukizuna neurte gain hartzeko eta meritoak jokalariei aitortzeko. Hori ulertzen ez duena inoiz ez da entrenatzaile izango".

Dagoeneko izerditan dauzka jokalariek -"lehen hitzak beti euskaraz egiten dizkiet"- Maracana txikia deitzen duen Atxabalpeko belar gozoan. Arratsaldeko itzalak zabaldu egin dira futbol zelaietan. Udalaitezko haitzak, berriz, gorritu egin dira.

■ Fagor Lemond-en atzetik, baina...

Aspaldi honetan gogoz ari dira Arrasateko txirrindulari taldeko arduradunak Greg Lemond Estatubatuarra fitxatu guran. Rocheekin izandako istiluen ondoren, negoziaketa ugari egon dira Fagor eta beste talde batzuen artean. Arrasatekoen helburua, lehen mailako txirrindulariren bat lortzea da, ekipoa sendotzeko.

Dena den, Greg Lemondek Z talde frantsesarekin zinatutako du akordioa 684 milioiren truk.

Ikusi behar orain zer erabakitzen duten Arrasateko arduradunek.

■ Ramon Luengok Mondra utzi

14 urte eta gero, Ramon Luengok jokalaria izateari utzi dio. Makinatxo bat izerdi bota ditu Ramonek Arrasateko taldea defendatzen, eta merezitako omenaldia eskaini zitzaion igandean Alavesen aurkako neurketari hasi aurretik.

Halere, Ramon Luengok ez du futbolaren mundua guztiz ahaztuko, aurtengo denboraldian Pedrusko taldea zuzentzeari ekingo dio eta.


■ Saskibaloi denboraldi berria

Urriak 8an hasiko da Liga Txapelketa berria Arrasate Kirolak Saski-baloi Taldearentzat. Gogoratu aurten bigarren mailan arituko direla; etsai gogorak izango dituzte beraz gure jokalariek.

Denborapasen soluzioak

Lauki nahasiak

"Sinisten dut egun batean hilko naizela: hutsean eroria, ezerezean amilduko, hauts bihurtuko naizela"



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

Memesa


79 42 22

Antartidako betoa

Australiako gobernuak Antartidako Meatzaritza Arautzeko Hitzarmena onartzeari uko egin dio. Hitzarmen honek orain debekatua da goen meatzaritza baimenduko luke eta era berean kontrolatu ere bai.

Australia Antartidaz erreklamazioa duten zazpi estatuetako bat denez, betoa jartzeko eskubidea du. Besteak Frantzia, Argentina, Txile, Norvegia, Britainia Handia eta Zeelanda Berria dira. Antza denez, Frantziak ere betoa jarriko dio.

Hitzarmena lortzea ez da gauza erraza izan eta sei urtean zehar negoziazio gogorak egon dira Antartidako Tratatu sinatu duten 30 estatu artean. Australiarrek, erabaki horren bidez Antartidan meatzaritzarik ez egotea nahi dute. Australiarren asmoa Antartida kontserbatzeko nazioarteko akordio zabala lortzea da.



Antartida munduko parke natural izendatzeko proposamena egingo dute australiarrek.

Dena den, ekologista askoren artean australiarrek hartutako erabakiaz kezka hartu da. Izan ere, Hitzarmenak meatzaritza baimentzen

badu, neurri batean kontralatu egiten du (horretarako mekanismoak jartzen dituelarik) eta Hitzarmen ezak kontrolik gabeko meatzaritza ekarriko ote duen beldur dira

(Elhuyar-etik hartuta)

Arrasateko “Umezaintza” anagrama diseinu lehiaketa

**Arrasateko “UMEZAINZAK”
Haur-Eskolako bere identifikazio
eta errepresentaziorako balio dezan
ANAGRAMA diseinu lehiaketa
antolatzen du.**

ARAUAK:


1. Lehiaketa honetan nahi duenak parte har dezake.
2. Anagrama berdina, kolore batetan eta bi koloretan aurkeztuko da, sinbolo eta marka-kin osaturik, ondorengo testoarekin: **“UMEZAINZAK” HAUR-ESKOLA** Anagramaren tamainua, letra mota, kolore eta gainontzeko elementuak, partaideak berak erabakiko du.
3. Aukeratutako anagrama Haur-Eskolaren identifikaziorako erabiliko da konkretuki papertegi komertzialean.
4. Irabazleak aukeratutako anagrama aurreko puntuan aipatutako elementuetan egokitu beharko du.
5. Obrak aurkezteko epea Irailak 15etik - 30era. Obra bakoitza sobre itxi batekin aurkeztuko da, bertan partaidaren izen eta datu guztiak egongo direlarik. Hau da Iñarra Kalean 30-32 zenbakian duen bulegoan entregatu beharko da.
6. Erabakitze eguna komunikabideetan agertuko da. Egunean bertan epaimahaikoen izenak jakin eraziko dira. Epai mahaiaren eritzia aldatu ezinezkoa izango da.
7. Saria **50.000 pezeta** izango da.
8. Lehiaketa honetan parte hartzeak berari dagozkion oinarriak onartzea esan nahi du.

Aire girotua autoetan

Gidatzeko eguraldi txarra aipatzean elurra, euria edo izotza datozkigu burura lehenbiziko momentuan. Baina udako eguzki beroa ere ezin esan gidatzeko ona denik. Kristalosteko eguzkia guztiz kiskalgarri bihurtzen da eta, bidaiaria luze samarra baldin bada, izerdipatsa eta egonezina ekarriko ditu halaberharrez. Eta leihoak zabaltzeak edota autoaren haizeari eragiteak ez du egoera konponduko, zertxobait leundu akaso.

Arazo hau konpontzeko sortu zen autoetako aire girotuaren aukera. Eta auto handi eta garestietan sortu ere. Aire girotuak leku ugari behar izaten zuen, eta autoaren potentziaren zati dexentea zeraman. Horregatik motore handiko auto handiak bakarrik ziren aire girotua eramateko gai.

Baina teknika-garapenari esker, aire girotua auto txikien eskuera jarri da. Aparailuaren eraginkortasuna gehitzea lortu den neurrian,



aparailua bera txikiagotu ahal izan da eta potentzia txikiko motorei egokitu. Egun, adibidez, 44 zaldi besterik ez du Citroen AX txikiena gai da aire girotua eramateko. Eta Italian Fiat Pandari ere ezarri ahal zaio airea girotzeko aparailua.

Aire girotuak motorearen indarra moteldu eta errekin-kontsumoa gehitu egiten ditu, baina ez %5a baino gehiago. Gainera, leihoak itxita ibiltzeak aerodinamika hobetzen du eta lehengo kalte hori ia ezabatzen irits daiteke.

Autogile gehienek eskaintzen dute aire girotua, eta modelo gehienetan, 120.000 pta.tik 250.000 pta.ra arteko salneurrian. Bestelako tailer batzuk ere landu dituzte airea girotzeko sistemak, kasu batzutan autogilearenak baino merkeagoak. Instalazioak egun bat besterik ez du behar, bataz beste, eta mantenuari dagokionez, nahikoa da urtean behingo errebisioa.

Osasunaren aldetik, aire girotuak kanpoko airea ondo filtratzen duen neurrian zenbait alergiaren aurka onuragarri izan daiteke. Era berean, kontuz erabiltzen ez bada eztarriko katarroa eta buruko kargazoiak ere sor ditzake.

Horrela, aire girotua luxuzko tresna izatetik aukera posible izatera igaro da. Uda partean kilometro dexente egitera beharturik dagoenak nahiko serio pentsatzeko moduko aukera.

Mikel Intxausti

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

Mazusta mermelada

Mermeladak urteko sasoi guztietan egin daitezke baina udazkena izango da seguruenik urtarorik egokiena, honetan mota askotako frutak aurkitzen ditugulako.

Nahiz eta gure artean sagarra eta makatza izan gehien erabili direnak horretarako, ia fruitu gehienekin egin daiteke: kalabaza, piku, melokotoi, mazusta, tomate, meloi, intsu-sa, azenario eta abarrekin.

Gaurko, gure artean ezaguna den basafritu bat aukeratu dugu: Mazusta.

Osagaiak:

- Ondo heldutako kilo bat mazusta
- azukrea
- kanela piska bat (norberaren gustora)
- limoi azal apur bat.



Mazustak uretan garbitu. Zukua botatzen hasi arte sutan jarri. Gero, pasapuretik pasatu zukua atera eta

haziak apartatzeko. Pisatu eta haren erdia beste azukre jarri. Zukua eta azukrea sutan jarri, kanela zotza eta limoi azala gehituta. Nahi izanez gero, brandy edo ron apur bat bota dakioko. Irakin, eragin eta puntuan noiz dagoen jakiteko apurren bat plater batera bota eta zabaltzen ez bada, ondo egosita dagoen seinale.

Asko galtzen da baina oso mermelada fina atera gura izanez gero, oihal batetan batu eta irazi egiten da.

Mermelada epel samar dagoenean ontzietan sartu, eta sartu ahala goilara batekin ondo zapaldu haizerik gera ez dadin barruan, bestela fermentatzeko arriskua dago eta.

Hotzitu arte poteak zabalik eduki behar dira. Gero "bainu marian" 20 minutu eduki eta negurako gordezteko prest.

Morokil taldea

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE


J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaleko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29. 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

ANDERE

*Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK*

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektatresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarletan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Loditasuna

Agian, gorputzaren itxura hobeaz izatearren edo, batzuek gorputzeko gantzak kentzeko edo forma fisiko onean jartzeko aprobetxatuko zuten oporraldia. Baina orain eguneroko ohizkotasunera itzultzean, berriro goraka has daitezke kiloak. Beraz, Loditasunari buruz zerbait esateko aprobetxatuko dugu.

Loditasuna gorputzeko gantzen gehikuntza da eta pisuaren gehikuntza dakar berekin.

Ez da gainpisuarekin nahasi behar; kasu honetan ere badago pisu gehiegi, baina ez gantzei esker; gainpisu hau kirolari batzuek agertzen da (harrijasotzaile, boxealari...); hauetan agertzen den gainpisua masa muskularrarengatik da.

Gorputz guztian edo leku konkretu batean gantzak kokatzen direnean, Adipositateaz mintzaten gara eta loditasunarekin batera ager daiteke, baina ez derrigorrez.

Populazio helduak duen nahaste

metabolikorik nagusienetako bat hauxe dugu, ia %30ak jasaten bait du, eta gehienetan beste prozesu batzuekin elkarturik aurkitzen da: diabetea, dislipemia, hipertentsioa, bihotz eta arnasketaren nahasteak, artikulazioetako gaitz degeneratiboak, inpotentzia sexuala eta abar...

Formula pare bat emango dizkizuegu nork bere pisu egokia jakiteko eta horrela bakoitzak jakingo du nola dagoen.

1. Lorentz-en formula: $\text{Pisu ideala} = \text{altuera} - 100 - (\text{altuera} - 150) / 4$

2. Metropolitan life insurance formula:

$$50 + 0,75 (165 - 150) = 61,25$$

Adibidez, har dezagun 165 zentimetroko altuera eta 72 kilo duen emakume bat eta jakin dezagun bere pisu ideala zein den.

$$\text{Pisu ideala} = 165 - 100 - (165 - 150) / 4 = 61,25$$

$$50 + 0,75 (165 - 150) = 61,25$$

IKusten denez, emaitza berdina

lortzen dira bi formula hauekin. Beno ba, 72 kilo pisatzen duen emakume honek %17ko gainpisua du.

Gainpisua kalkulatzeko honako formula erabili behar dugu:

$$\text{Pisu erreala} / \text{Pisu ideala} \times 100 - 100$$

$$\text{Kasu honetan: } 72 / 61,25 \times 100 - 100 = 17,55$$

Orain kalkula ezazu zeure pisu ideala eta zure pisua goitik izanez gero, jakin ezazu portzentaia zein den: %10 arte normala dela esan daiteke, kilo batzuk gehiago, hori bai; baina garrantzi handirik gabe. Zure gainpisua %10-20 bitartean badago neurriak hartzen hasi behar duzu; bide okerretik zoaz, zuzendu beharra dago. Eta zu %20tik gora zaude? Loditasuna edo obesitatea duzu, ez zalantzetan egon, argaltzea beharrezkoa da zuretzat. Saiatu horretan. Askoz hobeto aurkituko zara.

Eukeni eta Arantza

ERESI

YAMAHA sonora PANASONIX CEC MUSIMA
 KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas
 QUAD Clener CASIO EGI
 Mission baile Goodmans BASF NAKAMICHI
 HONNER Televes Ortel
 Zimmerman Polytone LARK Rotel
 Cyrus Fujitsu Fox MORESCIII
 JAMO JBL PIONEER KELLER PHILIPS
 TEAC Torque Admira Ortofon JUGGS
 carol Alpine Estrella KONIKA UHER
 Hantarex Tensai MELOS SHINTON
 Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09

olioak, lientzoak, akuarelak eta arte ederrak

Artea

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

J. L. GIRALDO

Laster kontsulta irekiko duela iragartzen du

DIGESTIO-APARATUA

Eguzki Dorrea 2. B
 Loramendi 6, 2. B
 Argibide gehiago jasoteko (Deitu 79 04 14 Tfnoa.)

Trapos

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38
ARRASATE

Kaskoaren garrantziaz

Bizikletan ibiltzeak arrisku handia du babesik gabeko ibilgailua da eta, abiadura handiaz ibiltzeak ekar dezakeen arriskua eta honek sor ditzakeen lesio grabeeekin.

Bestalde, burua babestuz gero, posible da istripu hauen ondorioz sortzen direnak prebenitzea, ohiturak aldatuz, bizikletarientzako bideak eginez, indarrean dagoen legeria aldatuz eta bizikletaren mantenua egitera behartuz.

Nola erosi kaskoa

1. Zertarako erabiliko den pentsatu: Konpetizioa, osteratxoak egiteko, mendia, etab.

2. Burua neurtu tamainu egokia zehazteko.

3. Gero frogatu: ondo ajustatu eroso hartu arte.

4. Erosi ondoren: orain irteten duzun bakoitzean bizikleta hartu. Bizia salba diezazuke!



Istripurik izan duen pertsona bat aurkituz gero, hartu beharreko lehen neurriak:

1. Babestu: beste istripurik gerta ez dadin, norabide bietatik datozeinei oharterazi.

2. Jakin erazi: dagokionari (anbulantzia, udaltzaingo, ertzaintza...) istripuaren kokagunea ze-

hazteko, ibilgailuak, zaurituen kopurua eta lesioak.

3. Lagundu: ez mugitu eta hotzitu ez dadin estali zerbaitez.

Kasko gehienak inportatuak dira: Bell, Brancala.

Eta prezioak: 4.400 pta.tik 8.100 pta.tara bitartekoa.

(*"Ciclismo a fondo"* -tik hartuta)

Gorka

**ILEAPAINDEGI
MIXTOA**

Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327
ARETXABALETA



MARENAZA

Altzriak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



Anboto

**INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK**

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian.

Inmobiliario propietatearen agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmentak eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea, 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

Obea

**Ate automatikoen
ezarpena
Konponketak
Berriztapenak**

Galdetu prezioak

**IGONGAILUEN
MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea
Tfnoa: 79 12 08

EPA-HHI HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

** Irakurtzen eta idazten ikasteko*

**Eskola-graduatu ateratzeko*

**Zure kultur maila hobetzeko*

*Ikastetxe publiko eta dohainekoa
Ikasketa ofizialak
Kultur ekintzak*

Matrikulatzeko epea:

Irailaren 4etik 30 arte

Tokia:

HHIko zentroa, goizez
Ferrerias, 28. B.
Udaletxeko Hezkuntza sailean,
bulego-orduetan

EUSKAL SOZIOLOGIA. EUSKARAREN DINAMIZAZIOA

Begarako UNED-ek eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak elkarlanean 1989-90 ikasturterako 170 orduko kurtso teoriko-praktikoa antolatu dugu.

Klaseak: *BERGARAKO UNED-EN LARUNBATETAN. 9etatik 1,30etara.*

Irakasleak: *J. M. SÁNCHEZ CARRIÓN. "TXEPETX".
IÑAKI LARRAÑAGA.
JULEN AREJOLALEIBA.
KIKE AMUNARRIZ eta
KOLDO ZUAZO*

Irailaren 12tik aurrera (asteleheneretan ezik) matrikula egiteko UNED-ara jo arratsaldeko 5,30etatik 8,30etara (Bi argazki eta N.A.N-ren fotokopia ekarri)

Ohar garrantzitsuak:

Ikasle kopurua mugatua izango da (90 pertsona bi taldetan).

Informaziorako dei egin arratsaldez 943-79 04 40 edo 943-76 13 42 / 43 tfoetara.

EKEKEI antzerki taldeak


NI NAIZ KAPITAN PILOTO

obra antzeztuko du

Noiz: OSTIRALA , IRAILAREN 15ean. GAUEKO 10etan.

Non: ZALDIBARREN (Eguraldi txarra eginez gero, Kiroldegian).

SARRERA DOAN



ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Miren Arrieta

Puntako tratamenduekin: Zelulitisa eta argaltzeko sistema.

Aurpegiko lifting ez-kirurgikoa.

Gainera, estetika-zerbitzu zabala.


Zatoz eta kontsultaiguzu

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Bisuteria.

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ETXEBIZITZAK

- **Neska bila ari gara pisua osatzeko.** Gaueko 10etatik 11etara deitu, astelehentik ostiralera bitartean. Tfnoa: 79 54 61.
- **Gasteizen pisua alogeran ikasleentzat.** Interesatuak dei 79 44 41 telefonora.
- **Pisua hartuko genuke alogeran Arrasaten.** Tfnoa: 11 74 24.
- **Pisua osatzeko lagun bila ari gara** (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolasi.
- **Neskez osatutako pisu bila ari gara Arrasaten.** Tfnoa: 79 52 22, ext.165.. Mertxe. (Deitezokotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- **Zarautzen, erdialdeko pisua alogeran** (igogailu eta guzti). Irailean 100.000 pezeta. Interesatuak deitu 83 17 67 tfno zenbakira. (Eguerdi aldera edo arratsaldeko 6etatik aurrera)
- **Pisua salgai Aretxabaletan,** Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- **Arrasaten erdialdeko pisua salgai,** Banco Bilbaon. 115m², garajea eta trasgela. Tfnoa: 79 51 21
- **Pisua alogeran hartuko genuke** Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera
- **Pisua salgai Munar inguruan.** 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- **Pisua salgai Uribarri kalean.** Hall, sukalde, bainugela, 3 logela, egongela, eta 32m²ko terraza. Tfnoa: 70 04 70. Arratsaldeko 6'30etatik aurrera deitu.

- **Merkatal lokala eskuz aldatuko genuke** Arrasaten. Salneurria: 900.000 pta. Goizez deitu.
- **Pisua salgai** Udalpe kaleko 1ean. 1.a ezk.
- **Pisua osatzeko nesken bila ari naiz.** Maalako errabala, 23-03.ezk. Arrasate. Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu.
- **Arrasaten pisua alogeran hartuko genuke,** irailatik aurrera. Tfnoa: 79 90 36-79 30 01
- **Pisua edo gela,** etxe konpartituan hartu nahi da errentan. Tfnoa: 79 91 50. Ion.
- **Pisua alokairuan behar dugu** altzari eta guzti. Tfnoak: 83 18 95 eta 88 45 55.
- **Baserria erosiko genuke** Arrasate edo inguruetan. Interesatuak dei 79 69 66 telefonora.

LANA

- **Neska edo emakume euskalduna behar dugu** umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei tfno.honetara 79 71 22. Goizeko 9'30etatik arratsaldeko 5'30etara.
- **Neska edo emakume euskalduna behar dugu** umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Dei telefono honetara 79 88 14 gaueko 8etatik aurrera.
- **Umezaintza haur-eskolak,** bazkal ordu-rako laguntzaile bat behar du. Kondizioak: Umeekin harremanetan ezagupena eta euskeraz hitz egitea. Kurrikuluna bidali. Jose Luis Iñarra Pasealekua 30-32. Epea Irailak 21 arte.
- **Emakume edo neska** behar da etxeko lanen eta hiru haurren ardura hartzeko. Euskaraz baldin badaki hobe. M. Kruz Rodriguezengana zuzendu. Erguin kalea,3 bis. 3.a,esk.
- **Pertsona arduratsua** eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86

- **Bisuteria salduz lan egin nahi baduzu,** deitu 79 68 45 tfnoz zenbakira.
- **Euskaraz dakien emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 07 73
- **Neska arduratsua haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu.** Esperientziaduna, txosten eta guzti. Tfnoa: 79 93 17.
- **Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu.** Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- **Bi neska behar dira** bi etxetarako. Dei ezazue telefono honetara 79 88 14. Arratsaldeko 8'30etatik aurrera.
- **Neska bat behar da** umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 29 05

SALEROSKETAK

- **Zuri-beltzeko anplagailua salgai** (ia berria). Tfnoa: 79 42 16
- **Ford Fiesta 1.1 Ghia SS-K salgai.** 160.000 pezeta. (aldakinekin arazorik ez)
- **Senar-emazte logela salgai** egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- **Kanadiar kanpin denda salgai** (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45

DENETARIK

- **Masaiak emateko 2 ohatila behar dira.** Tfnoa: 79 69 07
- **Armonia klaseak jaso nahi badituzu** (1,2,3 eta 4.maila) deitu 79 27 88 telefono zenbakira.
- **Maialen Morenorentzako ZORIONAK.** Irailaren 19an. Bere gurasoen eta bere ahizpa Sheilarern partez.

ARRASATEN HILDAKOAK

†
Pedro Iturbe Urrutia,
68 urte. Irailaren 3an.

Leoncio Valle Vidal,
69 urte. Irailaren 7an.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebehea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



...Orduko moruko afana banaukok,...

Zela izen zan Oñetire juetie?

Ni soldau ninguan orduen, ta aurreko astien etxera etorritte ninguan bagebixan txakurrok ziela-ta komentarixue ta aittejaune bizi zuan hemen eta harek: "hori baiño txarrauen bat juengo dok. Hire sasoie banaukok...". Txakurroi mendixen jauan eta apuntau eta esan nutzien urrengo asterako etxien eukittek. Juen kuartelera ta urrengo astien kostata bañe konsegiru naixuan permisuo. Juen eta irebazi, eta gero astelehenien periodikuen... ta alferzak: "¿Que has hecho?" Gero barriro hamabost egunerako permisue emon justien eta... ondo portau jatan niri txakurroi.

Martin Urbixakue-ta, Bixente Urzelai, Oñetikue-ta, izen gitzuon orduen, ... beatzi txakur danera.

Eta ze konkurso modu izeten zan orduen?

Lehenengo urtien etzuan izen oingo moruen eskortakin-dde. Hori gero etorri zuan. Orduko probak, ba, ardixekana fan, ardixek eka-ri, ... Gero barriro harutze erain, ardixek itxi han eta gero txakurre

**JOXE ITURBE ,
Oñatiko Txakur konkursoko
lehenengo kanpeoie**

ETA PERIODIKUEK ESAN AUIEN...

Urrengo, Degurixako Joxe Iturben "Chino"-k urten auen eta hain elegante ein auen lana, hango danok zoratu biherrian itxi gindduen.

*El Correo Español-El Pueblo Vasco. (1955-IX-27)
(Geuk euskeratue)*

bieldu, ... errebañotik aparte ardik auen ero beittu biher izeten juan. Harek jaukan meritue. Guriek, han euki juan bere espezialidadioi. Esan nutzan: "Pasau harutze, pasau harutze!", eta han juen zuan handik zier; Oñetiraiño ixie. Orduen etzuan eitten oingo lekuen; orduen Arantzazu onduen izeten zuan. Deittu nutzan eta agertu zanian hango txalue!

Harrazkero eztozu pentsau parte hartzeik?

Urrengo urtien be parte hartu naixuan bañe bixkaitar batek irebazi juan eta gero jarein ein nutzan. Ointxe jaukat txakurre kategorixakue. Horrek jaukek borondatie lana eitteko! Hoixe bier jok txakurrek, e! Nik oin banaukok orduko afana eta hau txakurrau hartu eta hola apur bat zerko bat ero beste ein ta hara sartzen praktika bat ero bi, ... horretxeik dittuk harako prinzipalenak eta, ... Holako bat ero bi eindre, bueno, ... hau dok atentue, ... hola markakue dok, hau, e, markakue!

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Lehen normala zan etxietan kabliekin eta tranpak eittia arginddar gutxiago pagatzeko. Iluntze baten gizon bat aillegau zan Plazentziako baserri batera eta ate joka hasi:

- Nor da? —barrukaldetik.
- Iberdueroko inspetoria naiz eta zabalduizu.
- Ba pixkatian itxoizu, tranpia kendu bihot eta.
- Zer, tranpia kendu bihozula eta itxoittek? Ez horraitio!
- Inddarka batian atioi zabaldu eban eta zabaltziaz bat jausi zan tranpa-zulotik behera, sats pillara.

■ ■ ■ ■ ■

"Ikusi dotsat", "ezagutzen dotsat" eta holakuak sarri entzuten die, eta gaztetxuen artian oinddio, gehixago. Gurasuak lehen, beti: "zer ikusi dotsazu ba? Ikusi dot esaten da". Oin, bata NOR-NORK dala eta bestia NOR-NORI-NORK, esplikatzien dotsegu. Hemen ikusten da teknikiak aspaldixan zenbait aurre-ratu daben.

Behin, goizero bezela Plaentziatik Eibarrera zijoian Turkua erreka-distia eta Maltzan eibartar gazte batek auto-stop egin zotsan.

— Turkua, Eibarrera eruango dostazu?

— Bai, botaik gaiñera.
Eta Turkuak, geldittu barik aurrera jarraitu eban, gaztia aho bete hortzekin han lagata.

"Zirikadak" etik moldatua


Juan Martin Elexpuru

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan

BIDEO - KLUBA
Tfnoa: 791886 ARRASATE



Iturriotz-kantoiko atea

Arrasate zaharra Erdi Aroan hiribildu bihurtu zutenean, harrersiz inguratua izan zen. Hori zela eta, herri barrura joan ahal izateko, "ate" jakin batzuetatik sartu beharra zegoen. Historian zehar horietako bost sarrera ezagutu ditu Mondragoek: 1) Beheko atea edo Portaloia; 2) Olarte-kantoiko atea, 1892an bota zutena; 3) Zurgin-kantoikoa, Monterroi jauregiaren aurrean dagoena; 4) Goiko atea, Gazteluondoko errebelean eta Gasteiz alderako irteeran, mende honen hasieran desagertu zena; eta 5) Iturriotz-kantoiko atea, garai bateko Kontzeziño komentua ondoan. Beraz, jatorrizko bost ate historikoetatik hiruk zutik diraute oraindik. 1955eko argazki honetan ageri dena Iturriotz-kantoikoa dugu, atzean San Juan parrokiako kanpandorre bitxia azaltzen delarik. Ate hau duela berrehun bat urte (1795) eraberritua izan zen.

Jerardo Elortza

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

ARRASATE
PRESS
astero zuekin

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTZA

FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGIAIAK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

Deba Garaiko Renault Kontzesionariak

SALTZAILEAK

Behar ditu

Eskatzen dena:

Gutxienezko heziketa-maila: Batxilergo elementala
Soldaduzka egina
B motako gida-baimena
Salmentan esperientzia eta automobilen ezagutza ere baloratuko dira
Euskaraz berbetan jakitea

Eskaintzen dena:

Heziketa- eta trebakuntzaldiak Enpresaren kontura
Salmenta-sektore baten erantzunkizuna
Ordainsari finkoa eta komisio inzentibatuak
Erabateko integrazioa enpresan, erakundearen babesaz
Zerbitzu-autoa

Idazkiak **Yolanda** andereñoari zuzendu.
(Eskabide guztiei erantzungo zaie eta aukeratzen ez diren gutunak itzuli egingo dira). (Gutun guztiak isilpean gordeko dira).



Renault kontzesionaria:

TALLERES MECA, S.A.

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



**TXOKO
TABERNA**

**Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak.**

**Monte
taberna**

Maalako errebala 11, Tfnoa: 79 20 56

HELDU ZAIK EGUNA

Eta hemen hago, hamaika
aurpegidun gizontxo,
iluneko ingurubilean
lokatza artean geldirik.

Denbora-uhinen gainerik labainka,
mozorroz aldaturik presaka,
bapatean enparantza erdian
geratu haiz,
gidoia idatzi barik,
makilaia agorturik,
abotsa garraturik,
antzezle zaharkitua bezala
aspaldiko paper guztiak
hurrenez hurren ikusten.

Eta hemen hago, hamaika
aurpegidun gizontxo,
lokatza artean geldirik,
iluneko ingurubilean.

Jon Iriberry

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

“PAL”

burdindegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri etorbidea,3 Tfnoa 79 31 99

FELIX

Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23

Tfnoa: 79 46 62 ARRASATE

■ **Komunikabideak pil-pilean:** Irrati-frekuentzia gehiago eta telebista pribatu espainiarraren sorrera ekarri dizkigu abuztu joan berriak. Euskadiko Elkarte Autonomoan koalizio-gobernuaren errealitatea present egon da frekuentziak banatzeko orduan. Adituen arabera, lizentzia gehien eta behinenak EAJ eta PSOEren artean banatu dira. Zazpi edo zortzi omen dira euskaraz emititzeko asmoa adierazi dutenak. Ikusi egin behar gero.

Ahal izan duen guztia atzeratu ondoren, azkenik PSOEek, azken hauteskunderetan agindutakoa bete ahal izateko, baina datozenetan haien lehia ez izateko moduan, azkenik diot, bide eman die bere gustoko hiru telebista kanale pribaturi. Euskal Herrian Bilbon eta Bizkaian oro har azalduko zaizkigu lehendabizi, euskaldunon hiru laurdenak hortxe bait daude, geroxeago poliki-poliki beste herrialdetara zabalteko asmotan.

Hogehitalau orduz emitituko duten kate hauek erdara hutsean egingo dute. Satelite-telebistaren esperoan, bada, oraingo eskaintza dexente zabalduko zaigu, den-dena erdaraz, hori ez ahaztu. Horren aurrean zergatik ez luke izan behar Eusko Jaurlaritzak, Kataluñan eskatu bezala, kanale pribatuak euskaraz sortzeko ahalmena? Hala izanda ere, ETB1 indartu beharko da, denok gura dugun telebista ona izan dadin.

■ **Arrate irratiak badu frekuentzia:** Urte luzez ilegala izanik, emititzen egon ostean, 17.000 entzule inguru dituen Arrate Irratia legala da honez gero, Eusko Jaurlaritzak FMn emititzeko frekuentzia baten jabe egin du eta.

Arrate Irratia 1959an antenaratu zen, Francoren gobernuak itxi zuen arte. Orain dela zazpi urte berriro hasi zen emititzen euskara hutsean. Abuztu arte legala ez baina legez kanpokoa ere ez zen egoera horretan iraun du. Gipuzkoako Diputazioetik eta Eusko Jaurlaritzatik zenbait dirulaguntza jasotzeaz gain, publizitatetik irabazten du Arratek diru gehiena eta dituen 2.600 abonatuaren kuotei esker. Zorionik beroenak Arrateko lankide eta entzuleei. Eutsi goiari.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **37. Nazioarteko Zinemaldia Donostian.** Gaur ostirala gaueko 20.55etatik aurrera Victoria Eugenia antzokitik zuzenean Donostiako Zinemaldiaren inaugurazioa eskainiko digu ETB1ek. Honez gain zinemaldian gertatu denaren berri izango dugu egunero.

■ **Gutxiengoak Europaren aberastasuna,** larunbatean 00.15etan. ETB1 azken asteetan eskaintzen ari den programa honen bidez Europa osatzen duten herriak ezagutzeko aukera dugu. Aste honetan "Sapmimtarren lurraldea" jo dute kama-rek.

■ **Pirata,** Larunbata 15,00etan. Zuzendaria: Vicente Minelli. Antzezleak: Judy Garland, Gene Kelly, Walter Slezak. Neska liluragarri batek ezagutzen ez duen pirata erromantiko batekin amets egiten du. Komiko batek bera neskaren ametsetako gizona dela sinestarazten dio. Bitartean, benetazko piratak komikoak bere pamera bete dezan uzten dio.

bideoak



Polizia Akademia Eroa 2:

Hauxe duzue dagoeneko 6.a duen seriaren bigarren emanaldia, aurrekoaren talde tekniko eta artistiko beraren eskutik.

Lehen, polizi akademiako ikasleak zirenak graduatu egin dira eta lehen misioa betetzera doaz. Edozer gauza gerta daiteke, baita zu aspertzea ere. Salgai 2995pta.+BEZ.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

								N							
								N							
			E		:										
				,											
									A						
									A						
A	N		E	A	M	I	L	A	I	Z	E	S		B	I
E	A	N		H	U	R	T	R	O	R	I	E	L	A	
S	T	E	N		E	G	U	L	A:		H	H	A	U	T
T	E	A	N	K	O		N	A,		E	Z	N	A	I	Z
U	T	S	E	D	U	A,		S	I	N	I		D	U	T
E	R	E	Z	U	K	O		N		B	A		H	I	L

Lauki nahasiak

Beheko laukitxoak goian behar bezala antolatu eta Xabier Leteren poema zahar eta ilun baten zatitxo bat agertuko zaizu.

(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

Horoskopoa




ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Lanean gogor hasi zara baina kontuz, ez zuhurregia izan, egin ditzakezun akatsak ezin dira konpondu. Poliki joaten bazara, emaitzak hobekak izango dira.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Nahiz eta pilak ondo kargatu, lana ez duzu gustora hartu, atsedernaldi gehiago eta desberdin bat beharko zenuke. Zaindu ez-arrria, gehiegi hitz egiten duzu eta.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ihes egin dizun aukera horrek, buru-nahasteak ekarriko dizkizu. Orain berandu da horretaz pentsatzeko. Ekin lanari eta urrangoan ez pentsatu hainbeste.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Zorionak! Buruan dituzun plan horiek Fortunaren laguntzari esker beteko dira. Arrakasta, maite dituzun pertsonekin ospatu-ko duzu.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Nahiz eta opor hauetan asko deskonektatu, ezin izan duzu lagun batzuk ahaztu. Ondo aprobetxatu dituzu, gainera nahi zenuena lortzeko.



VRIGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Gaizki hasi zara betiko bizimoduari, ez duzulako aurkitu bilatzen zenuena, baina denborarekin dena konpontzen da. Hemen-dik bi aste barru primeran ibiliko zara.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Oso egonaldi onean aurkitzen zara eta ingurukoek igartzen dute. Osasuna pixkatxo bat gehiago zainduz gero, inoiz baino hobeto sentituko zara.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Hanka-sartze hori konpontzea lortu duzu, lagun on bati esker. Gertatutakoa zehazki aztertzea duzu egokiena eta hurrengo baterako kontutan izan.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Aste honetan ez zaizu posible izan espe-ro zenuena aurrera ateratzea. Dena den, dena martxan dago eta esfortsu txiki bat baino ez da falta.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Azken bi aste hauetako bizimoduak indarrez bete zaitu orain duzun eginkizunari aurre egiteko prest zaudelarik. Duzun den-bora ondo aprobetxatu.





AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Buruari buelta asko eman beharko dizkiozu zer komeni zaizun argi ikusteko, baina erabakia hartu eta gero, gustora egingo duzu lan.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Mundu guztiarekin ondo gelditzea ez zaizu batera erreza gertatuko. Zuretzat garrantzitsuenak badakizu zer den eta horren arabera jokatu beharko zenuke.



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42